

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIATZATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, **2025eko urtarrilaren 23an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

“9.- Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdira aurkeztutako eskaeren hirugarren ebazpena onartzea.”

Alkatearen 2025eko urtarrilaren 21eko proposamenak honela dio:

“Unai Kortabarria Errastik (Sozioekonomia teknikaria eta batzordeko idazkariak) urtarrilak 16an egindako txostenean (CSV zkia: ESKUbb90fe4b-a8db-4e52-b35a-f7d3ea593f67) honako PROPOSAMENA egin zuela:

Espediente zk.:..... 2024ZDKO0018
Interesduna: OÑATIKO UDALA
.....
Gaia: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzak
.....
Sarrera erregistroa: 6474

Jarraian azaltzen dira gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 2022ko apirilaren 11n, 69. Zb.)

Bigarrena.- Oñatiko Udalak, 2024ko martxoaren 14an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, onartu zuen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia. (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2024ko apirilaren 8an, 67. Zb.)

Hirugarrena.- Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia kontuan izanda, 2024ZDKO0018/6474 espediente zenbakiari lotutako 2024/6474 eta 2024/6599 erregistro zenbakia duten sarreretan aurkeztuko dokumentuak aztertu ziren. Horrez gain, NISAE-Administrazio publikoen bitartekaritzako plataformaren bidez, besteak beste, zerga-betebeharretan egunean egotearen kontsulta egin zen Gipuzkoako Foru Aldundian, eta kontsulta horren emaitza jaso ostean egiaztatu zen interesdunak ez zituela zerga-betebeharrak egunean.

Ondorioz, akatsak zuzentzeko errekerimendua bideratu zen 2024/12/11an eta jakinarazpen elektronikoa 2024/12/19an onartu zuen interesdunak. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68 artikulua arabera hamar eguneko epea emanaz akatsak zuzentzeko.

Laugarrena.- Interesdunak eskatutako dokumentazio zuzenketa 2025/01/10ean aurkeztu zuen, 10 eguneko epea igaro ondoren (erregistro zenbakia 2025/ 217).

Hona hemen azaldutako **gertakarien balorazioa**.

Lehenengoa.- Aurrekari horiek aintzat hartuta, proposatzen da interesdunari ezarritako hamar eguneko epea luzatzea beste bost egun, 15 egun guztira, argudiatuz, alde batetik, zerga-betebeharrak egunean jartzea ez dagoela soilik interesdunaren eskuetan, foru ogasunaren prozedura eta izapidetze epeek baldintzatzen dutela neurri batean. Eta bestetik, dokumentazio zuzenketa hori ebazpena eman aurretik burutu duela interesdunak eta epe luzapenak kasu honetan ez diola publiko orokorrari edo hirugarrenei kalterik eragiten. Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzordeari proposatzen zaio interesdunak 15 eguneko epearen barruan aurkeztutako zuzenketa onartzea.

Bigarrena.- Eskaera osatuta beraz eta aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, jarraian zehazten den dirulaguntza onartzea proposatzen da:

ONARTUTAKO DIRULAGUNTZAK

ESKATZAILEA	IFZ	ESP. ZK.	DIRULAGUNTZA		
			SUST. LANPOSTUAK	ALOKAIRUA	GUZTIR A
UNAI BIKUÑA URIBEECHEVERRI A	***2625**	2024ZDKO0018/64 74	3.000€	Ez dagokio	3.000€

Hirugarrena.- Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1 1000.480.241.01.01 2024 (389) diru atalean.

Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia batzordean eman ostean, ondorengo **erabaki proposamena** egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

Lehenengoa.- Goian aipatutako Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza eskaera onartzea eta 3.000€ko gastua baimentzea 1 1000.480.241.01.01 2024 (389) diru atalaren kargura.

Bigarrena.- Jarraian zerrendatzen den onuradunari ordainketa hau agintzea:

ESKATZAILEA	IFZ	DIRULAGUNTZA
UNAI BIKUÑA URIBEECHEVERRIA	***2625**	3.000€

Hirugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzeko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://oñati.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena.- Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bosgarrena. - Erabaki hau eta Kontuhartzailletza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua araberak.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZDKO0018-TGB ziurtagiria/JGL certificado (BIKUÑA,URIBEECHEVERRIA,